

BALIO PROPOSAMENA

Gure proiektuaren balioa kualitatiboa da, diseinu eta kalitateari garrantzi handiagoa ematen baitiogu. Diseinuari erreparatuta, Elikaleku lau ataletan banatzen da. Lehenengo orrian momentuan saltzen dauden produktu guztiak azaltzen dira. Bigarrenak produktu jakin bat aurkitzeko aukera ematen du. Hirugarren ataletan zure profila duzu, eta bertan zure produktuen salmenta egin dezakezu. Azken ataletan erosle eta saltzailearen arteko harremana egoteko txata dago.

Elikalekuk beste lehiakideengandik duen berezitasun nagusia, aplikazioko jabeek ez dugula onurarik jasoko da. Hau da, dugun helburu bakarra ekoizle autonomoei laguntzea da. Horregatik, beraiek jartzen duten prezioan erosiko dute erosleek produktua, jabeek inongo komisiorik jaso gabe. Gainera aplikazioa egunero aktualizatzen da, iraungitako elikagaiak ezabatuz eta produktu berriei lekua emanez.

Honetaz gain, aplikazioa dohain denez, eskuragarria da denontzat. Gainera, gaur egungo teknologia aurreratua kontuan izanik erraztasun handia ematen digu gure proiektu honetara mugikorretik sartzeko aukera izatea, erabilerraztasuna lortuz. Horren bidez, ekoizleek haien produktuak bertan azaltzen dituzte edonork ikusteko aukerarekin, marketin lana erraztuz.

Prestakuntza aldetik, aplikazioaren sortzaileok ez dugu lanik egin behar produktua saltzen jartzeko, baina ekoizle autonomoek bai. Azken honek, prestakuntza bat behar du produktua saltzen jartzeko; prezioa idatzi, argazkia igo, iraungitze data ezarri eta informazioa gehitu.